



ENKARNA ARREGI / alexander silva / **uztarria**

Enkarna Arregi

Alexander Silva

© Egilea. Alexander Silva

© Uztarria Komunikazio Taldea

2011ko apirila

Azala. Eregi Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak (Azpeitia)

Diseinua eta maketazioa. Eregi Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak

Inprimaketa. Leitzaran Grafikak (Andoain)

Uztarria Komunikazio Taldea.

Helbidea. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia (Gipuzkoa), 20730

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Telefono zenbakia: 943 15 03 58

Fax zenbakia: 943 15 03 58

Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

web orria: www.uztarria.com

AURKIBIDEA

Bizitza bat ikastolaren alde	07
Iturbidekoak hamar!	08
Iturbideko alaitasuna zainetan	11
Ikasteko gogo handirik gabe	12
Zazpi gizonezkoren zaindari	15
Moja bidean Burlatara	17
Bihotza erritmoa markatuz	20
Herrira bueltan	22
Komentuan eta ikastolan	25
Esklabetara hobekuntza bila	29
Bi munduren artean	37
Sekular bizitzaren hasiera	38
Bokazio falta?	41
Ondoren, erretiroa	42

BIZITZA BAT IKASTOLAREN ALDE

Herriko gazte eta ez horren gazte diren askoren ikastolako oroitzapena da Enkarna. Loiolako ikastolan ekin zion irakasle lanari, eta gerora administrazio kontuak eramateaz ere arduratu izan zen. Beharbada, gazteenek haren zoriontasuna, zintzotasuna eta algarak oroituko dituzte. Neguan abitu beltza eta udan zuria janzten zuela gogoratuko dute helduagoek. Zaharragoek, berriz, ez dute ahaztuko klasean ezartzen zuen disziplina, hezkuntzari zion maitasuna eta haren irakasteko grina.

Berarekin lana egin edo harremana izan dutenek diote Enkarna ez dutela ahazten, eta ikastolan oso maitea izan zutela. Inork ez du hitz txarrik harentzako. Agian, bere bizitza-filosofiaren fruitua da hori: “Inori gaizki ez egitea, zuk ereiten duzun hori beti bueltan etortzen baita”.

Akaso, askok oraindik ez dakizue nortaz hitz egiten ari garen. Ikastolan sartu eta lehen harremana eskaintzen zuen emakumea izan zen urte askoan; jolas-orduan zauriren bat egin zuen ikasleari medikuarengana ere berak laguntzen zion; konterjea, zaindaria, irakasleen laguntzailea, eta ikasleen ikastetxeko ama zen.

Oso arraroa izan zen ikastolaren sorrerako urte-etan, euskararen aldeko militantzia puri-purian zela, eta ikastola hezkuntza akonfesional moduan ulertzen zen garaian, ikastolaren lehen irudia moja bat izatea. Baina, agian, zurrumbilo hark tartean harrapatuta edo patuak hala erabakita, Enkarnak moja izatea utzi eta sekular bizitzari heltzea erabaki zuen. “Ez naiz ezertaz damutzen. Ez moja izateaz, ez bizitza hura laga izanaz. Unean-unean barruak eskatzen zidana egin izan dut. Kulturalki eta formazio mailan asko aberastu nintzen moja nintzen bitartean, baina pertsona bezala eta euskararen arloan ikastolak eman dit naizen guztia. Niretzako plazerra zen lanera joatea”.

Datozen orrietan Enkarna Arregiren bizitzaren gorabeherak, sekretuak eta bizipenak argitzen saiatuko gara, beti ere, berak eta bere ingurukoek konstatutakoaz baliatuta.

ITURBIDEKOAK HAMAR!

Loiola auzoan dago Iturbide baserria. Haren paretek bizipen asko gordetzen dituzte. Horien artean Nartzabalgo Maria Zubizarretak eta Patxi Arregik bizitakoak. Maria eta Patxi gazte ezkondu ziren,

Iturbide baserria, Loiola auzoan.
Enkarna bertan hazi eta hezi zen.



Familiako argazkia. Iturbide
atarietan. Enkarna amaren atzean
dagoena da.



garai haietan egiten zen moduan. Maiorazkoari jarraituz, Patxi gelditu zen Iturbiden eta Mariarekin batera sortu zuen familiak jarraitu zuen etxe hartan.

A zer familia! Hamar seme-alaba izan zituzten. Sei mutil eta lau neska. Zaharrenetik gazteenera: Imanol, Milagros, Arantxa, Enkarna, Juanito, Miguel Mari, Inaxio, Joxe Mari, Mari Carmen eta Andoni.

Enkarnak dioenez, “urte haietan ez zegoen familia planifikaziorik, baina nola edo ala moldatzen ziren bi urtez behin haur bat izateko”. Horrela, Andoni jaiotzean Imanolek ordurako bazituen 20 urte. “Senideetan zaharrenak zirenek gazteagoak zaintzeko ardura zuten”.

1940. urtean jaio zen Enkarna, hamar senideen artean laugarrena. Gogoan du txikitan baserrian lagun asko zirela: “Gurasoez eta gutaz gain, aitaren beste hiru anaia zeuden etxean. Baina pixkanaka haiek ezkondu eta etxetik joan ziren”.

Hala ere, urte askoan, familiako bidelagun izan zuten izeba Joxepa. Aitaren urrutiko lehengusua Garate Anaiarekin bizitakoa zen. Auzotar guztiek izebatzat zuten. “Denek deitzen zioten izeko! Iturbideko Izeko”, gogoratzen du Enkarnak.

Joxepak Iturbideko atarian pasatu zituen arratsaldeak, 95 urte zituela zendu zen arte.

ITURBIDEKO ALAITASUNA ZAINETAN

Baserrian algarak, kankak eta festa egunerokoak ziren. Horrela gogoratzen dute bai Enkarnak, bai Imanolek, anaia zaharrenak. Enkarnak oso une politak gogoratzen ditu familiaz inguratuta. “Gauetan jolasteko unea izaten zen. Eskolatik bueltan batzuk eta besteak beraien zereginetatik etxeraturatutakoan, sukaldean elkartzen ginen. Hura zen sozializatzeko gunea. Anaia txikiena, urtetxo bat besterik ez zuela, sukaldean aurrera eta atzera ibiltzen zen eta gu hari begira barrezka”.

Odolean dakarte iturbidetarrek festazaletasuna. Imanolek kontatzen du: “Jatorduan, denok mahaiaren bueltan jarrita geundela, askotan esaten nion neure buruari: ‘Gaur Enkarnak ez dit bazkalduko!’ Eta halaxe izaten zen. Bazkaltzen hasten zenean, edozer gauzogatik barre eginarazten nion, eta jateari utzi behar izaten zion”. Baina anai-arreba guztiak dira horrelakoak. “Iturbiden gripea ere ospatzen zela esango nuke”, dio Begotxu Azkuek, ikastolan urteetan Enkarnaren lankide izandakoak.

Imanolek, ordea, alaitasun hori azaltzeko badi-tu beste teoria batzuk; dena ez omen dator odole-an: “Gerra garaia eta behar handia zegoen denbo-ra hura ezagutu genuen. Gainera, gure ama oso sinestuna zen. Horregatik, gazte garaian asko eutsi ziguten, ez ziguten utzi jairik jai eta festarik festa ibiltzen. Gerora, atea zabalik ikusi genuenean, denak aztoratu eta horrelako familia alaia irten zen. Eskertzen dut gaztetan soka motzean lotu izana, bestela ez nintzen horrelakoa izango-eta! Imanol ez ezik, *Imanoltxo* izatera ere ez nintzen helduko”.

Baina Enkarna bereziki alaia dela diote guztiek, bai ikastolako lankideek, bai moja kongregazioan harekin batera egon zirenek, baita Imanolek ere. “Oso emakume alaia, langilea eta trebea da Enkarna. Beti dago edozertarako prest eta oso mañosa da.”

IKASTEKO GOGO HANDIRIK GABE

Alaia, langilea eta trebea bai, baina ez oso ikasle fina. “Gure etxean denok ikasi genuen. Denok pasatu gara eskolatik. Batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago. Adinaren eta momentuko behar-reen gauza ere bazen hori”, dio Enkarnak.

1950ean, Esklabak atarian aterutako argazkia. Enkarna bereko ilararen eskubian dagoena da.



Patxi Arregi eta Maria Zubizarreta bost seme-alabekin. Aitaren eta amaren erdian ageri den neskatoa da Enkarna.



Ikasle garaian Loiolan zegoen Erremitteriko eskolan eman zituen lehen pausoak. Handik, Esklabetara.

“Nahiago nuen etxean gelditzea. Baserrian lana tokatzen zen: baratzean, soroan, bata besteari lagundu... Horrela hazi ginen. Baina ikastea ere beharrezkoa zen. Garai hartan, garrantzitsuena gizonezkoek ikastea zen, emakumeek, beno... zeozer. Ez zen horren garrantzitsua”.

Esklabetara hiru ahizpak batera joaten ziren. “Sokadantzan abiatzen ginen goizero. Bik mutur banatatik eutsi eta bestea erdian saltoka, kale egingakoan lekuak txandakatuz”.

Gogorik gabe joaten zen Enkarna ikastera eta klaseak hitz egiten pasatzen zituen. Behin baino gehiagotan bidali zuten kalera ez isiltzeagatik. Baina larriena hiru egunez kalera bota zutenean etorri zen. “Zer kontatu behar nuen etxean? Zer esango nion amari?”. Kezka horrekin joan zen etxera egun hartan, baina Iturbidera heldu ahala aurkitu zuen irtenbidea: “Une hartan zelaian goldearekin ibiltzea tokatzen zen. Amak esan zidanez, itulan egiteko norbait behar zuten hiru egunez, idiaren aurretik joan eta pausoa markatzeko”. Aitzakia horrekin hiru egunak baserrian lanean

pasatu zituen Enkarnak eta inori ez zion kontatu eskolan gertatutakoa.

Hiru egunak pasatuta berriro Esklabetara bueltatu zen, baina artean, ikasteko gogo gutxiarekin. Zenbait irakaslerekin klaserik ez emateko trukua ere bazuten gelakideek. “Ahizpa Carmenekin klasea genuenean nahikoa zen Franco aipatzea. Moja frankista zen hura eta diktadorearen izena aipatuz gero klase-ordu guztia pasatzen zuen Francoren bedeinkazioa kontatzen. Bitartean, gu pozik klaserik eman ez genuelako”.

ZAZPI GIZONEZKOREN ZAINDARI

Esklabetako ikasketak amaitu eta etxean gelditu zen Enkarna, amari laguntzen eta baserriko lanak egiten. Bazuen zeregina, zazpi gizonezko, sei anaiak eta aita zeuden etxean, eta “zazpi asto bezalakoak ziren. Amak ezin zuen guztiekin”.

Behin, bi ikasturte pasatzera Urduñara joan zen, han izeba batzuk moja baitzituen. “Han ohartu nintzen ikasteko beharraz”, dio Enkarnak.

Horregatik, handik bueltan, etxean lana egiteaz gain, Cristo Reyko mojek Loiolatxon ematen zituzten gau-eskoletara joaten hasi zen. “Batxilergoa

ikasten ere hasi nintzen eta ondoren etorri zen moja sartzeko planifikazioa”.

Iturbiden ez zen lanik falta, baina ezta jairik ere. Gabonak, igandeak edo auzolana izaten ziren festarako aitzakia. “Iraila inguruan auzotarrak garoa biltzera joaten ginen. Gau-partean eta garoa jaso ondoren, baserrian elkartu, zerbait jan eta pandero eta trikiti soinuekin ikaragarritzko festak egiten genituen. Hurrena karobian tokatzen zenean ere, jaia berdin-berdin egingo genuen”.

Ondo gogoratzen du giro hura Imanolek, festa egiteko noiznahi bilatzen baitzuten aitzakia: “Behin zartaginari ere omenaldia egin genion. Osabak etxean zeuden egun batean, amak esandakoaren harira etorri zen dena. Nonbait, gurasoak ezkondu eta baserrira etortzean, sukaldeko zartagin txikia dagoeneko bertan zegoen. Osabek ziotenez, horrenbeste urtez Iturbiden egonda, omenaldia merezi zuen eta, gainera, egunkariak ere horren berri eman behar zuen. Apustuak ere egin ziren etxean. Handik egun batzuetara, bai egunkariak eta bai zabaldu berri zen Loiola Irratiak ere Iturbideko jaiaren albistea eman zuten. Gure amak zorotzat jo gintuen. Baina kristoren omenaldia egin genuen. Baratzuri zopa eta saiheskia zen aukeratu-

tako menua. Ondo pasatu genuen. Horrelako asko egiten ziren gurean”.

Horrelako festazale koadrilarekin, nola lagako zuen Enkarnak ama bakarrik etxean? Dagoeneko ahizpa zaharrena ezkontuta zegoen, beste ahizpa Venezuelan moja eta Enkarnaren ondorengoa, gazteena, oso txikia zen. Etxeko lan gehienak egiten zituen eta amaren laguntza guztia Enkarna zen. Horregatik, anaia zaharrena ezkondu zain egon zen moja sartzeko. Erabakia 25 urterekin hartu zuen. “Nik ez nuen gizonezko bati lotutako bizitza aurreikusten. Neskazahar gelditzea ere ez zen irtenbiderik egokiena, beraz, ez ziren aukera asko gelditzen. Etxean erlijio giro handia zegoen errotuta, eta inork eskatu gabe, barrutik irteten zitzaidan errezatzea, mezetara eta Loiolako Jesuiten funtzioetara joatea. Txiki-txikitatik iturri hartatik edan genuenez, banuen halako egarri bat, eta egarri hura asetzeko zer hobeto moja sartzea baino”.

MOJA BIDEAN BURLATARA

Moja sartzea erabaki zuenean, Loiolatxon zeuden mojen kongregaziora jo zuen. Esclavas de Cristo

Rey zen kongregazioaren izena eta Burlatan zegoen komentu nagusia. “Orduan ez zen arraroa. Jende asko joaten zen komentura eta asko ginen moja bidean jarri ginenak. Askoren kasuan, agian, ez zen bokazio kontua; beste aukeren falta baizik. Garai haietan ezkondu, *aberaskillo* baten etxean neskame izan, neskazahar gelditu edo moja sartzea besterik ez zegoen eta”.

Moja sartu zenean, aurretik hasitako ikasketekin jarraitu zuen. Han jaso zuen formazio oparoena, eta moja sartzeko prozesuari ekin zion.

Moja izateko, hasieran sei hilabeteko postulatu egin behar izaten zuten. “Denbora horretan gure komentuko bizitza eta lehen kristau ikasketak jasotzen genituen. Besteengandik desberdintzeko, abituan lepoko zuri bat jartzen ziguten”.

Sei hilabeteak pasatu ondoren, behin-behineko botoak egiten zituzten mojek. Bi urterako izaten ziren eta, epe hura gaindituta, behin betiko botoak ziren moja formazioa ixten zutenak. Nolabait, betirako hartutako konpromisoaren seinale ziren. “Nik botoak egin nituen egunean autobusa bete familia joan zen Burlatara. Komentuko leihotik ikusi nituen iritsi zirela, eta nola egongo ziren ba isilik! Hala zioten: ‘Aizan! Boda aurreko gaua nobioaren etxean

Enkarna gurasoekin Burlatako
komentuan, artean postulatua zela.



Moja izateko botoak egin zituen
eguneko argazkia, Burlatako
komentuan. Enkarna, ezkerrekoa da.

pasatu dun eta hori ez zagon ondo!'. Jakina, Kristorekin ezkontzera nindoala esaten nien eta".

Botoak eginda, kongregazioak destino bat eman zion Enkarnari: "Irakasle Madrilera joan nintzen. Destinoa ez zen aukeratzen, kongregazioak erabakitzen zuen non zegoen beharra".

Madrilen haur txikiei klaseak ematen zizkien Enkarnak. Hango ikasleak oso disziplinuak ziren: "Isilak, kaso egiten zutenak... Adibidez, jolasdenboran jolastokira jaisteko denak ilaran, zuzen-zuzen, paretaren kontra elkar eskua emanda jartzzen ziren. Jolastokira iritsitakoan txistua jotzen nuen eta orduan jolasten zuten, bitartean isilik eta txintxo. Berriro txistua jotzean, denak ilaran jartzzen ziren".

Enkarna Madrilen zegoen bitartean urtean behin etortzen zen Azpeitira, familia bisitatzea "beharrezkoa" zen beretzako. Lotura handia izan du beti guraso eta senideekin.

BIHOTZA ERRITMOA MARKATUZ

1973an, Madrilen zegoela bihotzeko arazo bat topatu zioten medikuek Enkarnari. Txikitatik ahu-
lezia, bular inguruko minak eta esfortzuak egitera-

koan zailtasunak izan bazituen ere, inork ez zion ezer aurkitu. Baina Madrilen, lantokiko errebisio batean bihotzeko zain bat estututa zuela esan zioten.

Arazoa konpontzeko ebakuntza egin zioten. Iruñean operatu zuten Enkarna eta medikuaren aginduz etxean pasatu zituen egun batzuk, lasai-lasai baserrian. “Operatu berrian, erietxeko ohean nengoela, trikiti eta guzti azaldu zen Imanol; baita soinua eta panderoa astindu ere! A zer nolako poza hartu nuen!”.

Ebakuntza ondo atera bazen ere, bere bizitza markatu zuen. Ebakuntzaren ondoren klaseak emateko indarrik gabe gelditu zen Enkarna. Nola edo ahala moldatzen zen, baina ez zen erarik egokiena.

Bere egoera ikusita, kongregazioak Enkarnaren kasua aztertu zuen eta irtenbide bila Segoviako gogo-jardunetako etxera bidali zuten. “Bizitza lasaiagoa zen han, baina klimak ez zidan onik egiten. Bihotzaren arazo horrek nire bizitzaren erritmoa markatu izan du beti; baja asko hartu behar izan dut bizitzan zehar, baina ez zegoen besterik”.

Imanolek ere gogoratzen du Enkarnaren ebakuntza: “Bihotzeko operazio hark markatu zuen

bere bizitza. Gauzak ez ziren behar bezain ongi atera eta bizitza-erritmo lasai eta motelago batera ohitu behar izan zuen. Bestela, ziur nago azkenean beste ahizparekin batera, Arantxarekin, Venezuelara joango zela”.

HERRIRA BUELTA

1975ean Venezuelara ez, baina destinoz aldatu zuten Enkarna, eta berriro Azpeitira etorri zen.

Loiolatxon zegoen eskola mistoan lanean ari-tzeko destinatu zuten Azpeitira. “Eskola hura urte-betez bakarrik egon zen zabalik, baina urte hartan jendea behar zuten, eta hara non, ni herrira buelta-tu nintzen”.

Loiolatxoko eskola trantsizio bat izan zen Enkarnarentzako. Hura itxi zutenean, kristau ikas-bidea irakasteko bere burua eskaini zuen ikastolan. Azpeitiko Ikastola orduan Loiolan zegoen, egun liburutegia dagoen alderdi horretan. “Berehala baiezkoa esan zidaten. Egun batean, Donostiara joateko autobusaren zain neñgoela ikastolako zuzendaria, Iñaki Larrañaga, gerturatu zitzaidan, ea hurrei klaseak ematen esperientziarik ba ote nuen galdezka. Bai horixe! Bai Madrilen eta bai

Loiolatxon! Egun hartatik aurrera ikastolan klaseak ematen hasi nintzen”.

Artean, Enkarna moja zen. Horregatik Burlatara joan behar izan zuen hango superiorari ikastolan lanean hasteko baimen eske. Bidaia hartan, Azpeitian egun batzuk pasatzen zegoen Venezuelako ahizparen laguntza izan zuen. “Hasieran, zalantza asko zituzten. Politikan sartuko ote nintzen beldur ziren. Garaiko ikastola ez zen gaur egungoaren modukoa, eta beldurra zuten. Baina argi laga genion Arantxak eta biok hori ez zela gertatuko, eta azkenean baiezkoa eman zidaten”.

Ezagutzen zituen ikastetxeekin alderatuta, ikastola oso diferentea zen. Garai hartan ikastolako filosofia askatasuna zen, “ikasleei ezin zitzaien ezer esan, denak libre behar zuen. Desmadre handia zegoen”.

Enkarna zazpi urteko haurrekin lanean zegoen eta bere ibilbidean jasotako disziplina ezartzen saiatzen zen. Askotan alferrik zen, ez zuen ezer lortzen.

Haurrekin egindako egunpasa batean, ordea, neskatila batek esan zion: “Andereño, ona zara ba!”. Enkarnak bazekien ez zuela on fama handirik

eta hori zergatik zioen galdetu zion haurrari. Umeak galderari erantzun beharrean zera esan zion: “Benoa, batzuetan zital xamarra ere bazara, ordeala!”.

Adierazpen haiek eragina izan zuten Enkarnarengan. Eta, handik aurrera, disziplina beste irakasleen mailara egokitzea erabaki zuen. Hala ere, ikastolaren filosofia pixkanaka aldatuz joan zen: “Konturatu ziren bide hartatik ez gindoa-zela ongi eta berriro disziplina ezartzeari ekin zioten”.

Lehen urtea ongi igaro zuen Enkarnak umetxo-ei klaseak ematen, irteerak egiten eta jolasten. Baina bihotzeko arazoa berriro arreta eske hasi zitzaion bigarren urtean. “Eguna ondo hasten nuen, baina eguerdirako xixko eginda nengoen. Gainera, garbi nuen ni gaizki banengoen, haurrak ere gaizki egongo zirela”.

Zuen arazoa planteatu zuen ikastolako zuzendaritzan eta erraztasun guztiak eman zizkioten. Ikastolan pasatu zuen bigarren urtean klaseak egun erdiz ematen zituen; eta arratsaldean, administrazioan aritzen zen. Bizitza lasaiagoa zen hura, presio gutxiagorekin. Hortik aurrera, jubilatutako arte, administrazioan eta harreran jarraitu zuen lanean.

KOMENTUAN ETA IKASTOLAN

Familiarekin lotura handia bazuen ere, Azpeitira bidali zutenean Loiolan zegoen komentura etorri zen bizitzera, egun Arrupe Hotela dena. Igandero gurasoak bisitatzera joaten zen baserrira, baina bizitza komentuan egiten zuen Enkarnak.

Dena bertatik bertara zuen. Baserria Loiola auzoan, komentuaren atzeko aldean; ikastola ere, lana, Loiolan bertan. Gertutasun horrek bazituen alde onak eta txarrak. Dena gertu izanda lanera joateko gutxi nekatzen zen Enkarna. Baina gertutasun horregatik asteburu asko pasatzen zituen ikastolako harreran, astelehenerako lanak aurreratzen. “Oso maitea zuen ikastola. Benetan gustura ibiltzen zen han eta asteburu askotan joaten zen fotokopiak, paperak edo ikasleen fitxak prestatzera”, gogoratzen dute Marian eta Maritxu Azkuek. Enkarnaren komentuko mojak ziren azkuetarrak. Harreman handia izan dute beti, eta oraindik ere, nahiz eta Enkarna kongregaziotik kanpo egon, sarri bisitatzen dute elkar.

“Nire bigarren etxea zen ikastola. Arratsalde asko pasatzen nituen bertan. Irratian musika entzunez multikopian jartzen nintzen klase guztietako

materiala sortzen, hurrengo egunetan irakasleek kexarik izan ez zezaten”, dio Enkarnak.

Ikastolako lanak bere eguneko denbora gehiena betetzen zuen, eta Enkarnaren kezka izan zen beti komentuan zuen bizitza-harreman urria. “Berak kanpoan egiten zuen lana, eta etxera etortzen zenean oso nekatuta egoten zen. Afaldu, gurekin tartetxo batean hitz egin eta beste gauza handirik ez genuen egiten. Baina inork, inoiz, ez zion aurpegiratu ezer”, diote Azkue ahizpek.

Hala ere, ingurukoekin egoteko tarteak ateratzen zuen handik edo hemendik. Zenbait irteera ere egin zituztela gogoratzen dute Marianek eta Maritxuk: “Santanderrera eta Salamancara egindako bidaia politak ditugu gogoan. Toki guztietan ongi hartzen zuten Enkarna. Oso pertsona jatorra da. Karakter handikoa izan arren, beti koherentziaz jokatzeko du”.

Lanpetutako egunak izaten ziren Enkarnarenak. “Ikastolako *chica para todo* zen Enkarna. Edozer konpondu, klasea zaindu edo garbitu behar bazen, bera beti prest zegoen. Entxufe batek ez bazuen funtzionatzen, Enkarnak konpontzen zuen. Lanari heltzeko beldurrik ez zuen emakumea zen”, dio Begotxu Azkuek. Juanito Amenabarrek, Ikastolako

Argazkian, Enkama lau izeba
mojekin, Loiolako eskaileretan.



Enkama Loiolako
ikastolako bulegoan
lanean.

zuzendari ohiak, honela deskribatzen du Enkarna: “Ikastolako administraria, kontserjea, zaindaria, irakasleen laguntzailea... Dena zen guretzako. Nolabait, denen ama ere bazen”. Enkarnak oso maitea zuen egiten zuen lana eta bere lankideak ere asko estimatzen zituen. “Bere lana gustura egiten zuen, ez zuen diruagatik egiten. Izan ere, diru guztia komentuan lagatzen zuen. Benetan maite zuen ikastola Enkarnak, eta ikastolan bera ere maitea zen”, diote Maritxu eta Marian Azkuek.

Lanpetuta ibiltzen bazen ere, beti ateratzen zuen ondo pasatzeko tartea. Ingurukoekin disfrutatzeari da gehien gustatzen zaiona, baita orain ere. Horregatik, gabon inguruan komentuan antzerkia prestatzen laguntzen zuen bezala, ikastolako jai, afari edo ospakizunetan ere presente egoten zen. “Egundoko festa eta afariak antolatzen genituen ikastolako langileen artean. Zenbaten ezkontzetara joan ote nintzen... Saiatzen nintzen bat bera ere ez galtzen!”, gogoratzen du.

“Enkarna ikastolan zebilen garai hartan gu ere gazteagoak eta ekintzaileagoak ginen. Festetara joateko, afariak antolatzeko... arazorik ez genuen, hurrengo egunean lanera joan behar bagenuen ere!”, azaldu du Dolores Goikoetxea ikastolako ira-

kasleak. Lagunak ziren eta familia handi bat osatzen zuten.

“Lanean beti oso onartua sentitu nintzen. Horregatik denak familiakoak balira bezala sentitzen nituen. Niretzako plazer bat zen lanera joatea, gozatzeko zerbait, disfrutatu egiten nuen”, dio Enkarnak. Baina une gogorrak ere bizi zituen ikastola barruan, tartean Naroa Aranguren ikaslearen heriotza.

ESKLABETARA HOBEKUNTZA BILA

Esklabetako eraikina eskola izateko moldatuta zegoen. Izan ere, emakumezkoen eskola erlijiosoa izandakoa zen. Enkarnari oroitzapen ugari ekartzen zizkion eraikinak, umetan ordu asko bertan igaro baitzituen. Gainera, Esklabetako eskola mojen eskola izandakoa zen, eta Enkarna moja zela bueltatu zen hara; hori bai, lanera.


Agian ez zen hain arraroa izango Esklabetan sartu eta harreran moja bat aurkitzea. Eraikinak hori eskatzen zuen. Baina ikastetxe publiko bat zela kontuan hartuz gero, zalantzak sor zitezkeen. “Moja bat lanean zegoen ikastola bakarra izango zela pentsatu izan dut askotan”, dio Enkarnak.

Dolores Goikoetxeak hala dio: “Enkarna ikastolaren irudia zen, guraso eta ikasleen lehen kontak-tua, gutako askoren konfidentea ere bai. Ikasleekin izaten genituen haserreak ere berak entzun behar izaten zituen, eta zenbait kasutan, ikasleenak ere bai”.

Juanito Amenabarrek gogoratzen du Enkarna “oso pertsonaia publikoa” zela: “Jende guztiak eza-gutzen eta baloratzen zuen. Horregatik, ez zen inor harritzen moja hura harreran ikusita. Baina kanpo-tik ordezkapena egitera irakasleren bat etortzen zenean, beti harrituta gelditzen zen”.

Esklabetako eraikinak aldaketa asko ekarri zituen. Enkarnaren bulegoa handiagoa zen orain, ikastolak beste heldutasun maila bat ere lortu zuen eta Enkarnak abitua aldatzea erabaki zuen. Ez guz-tiz aldatzea, baina bai tarteka kolore desberdineko abitua janztea. Neguan abitu beltza erabiltzen zuen, eta udaberri-uda garaian, berriz, zuria. Erabaki pertsonala izan zen, ordea, ez kongrega-zioarena. Begotxu Azkuek gogoratzen duenez, “Enkarnaren kongregazioa oso itxia zen. Denek abitu beltza erabiltzen zuten, eta Enkarnak zuri hori jartzea ez zuten gustuko aldaketa izan”. Enkarna Iturbidekoa zela garbi zegoen, zuen iza-

Ikastola Loiolatik Esklabetara
lekualdatu zenean, Enkarnak bulego
handiagoa zuen. Harrerako lanaz
gain, administrazioan ere aritzen zen.



Udan abito zuria janzten zuen
Enkarnak; neguan, berniz, beltza.



ragatik. “Ikuspegi praktikoa zuen, baikorra, alaia, zoriontsua, baina tenperamentua zuen eta izaera gogorra. Hala ere, triste edo alai, zoriontsu edo haserre, Enkarnak beti aurpegi ona jartzen zien denei”, esaten du Amenabarrek.

Esklabetan, lantokia ja ez zuen lehen bezain gertu. Enkarna, zituen osasun arazoak medio, zailtasunez heltzen zen egunero lanera. Horregatik, gidabaimena ateratzeko aukerari bueltak ematen hasi zen: “Lankideei eta senideei galdetu nien ea nola ikusten ninduten gidabaimena ateratzeko, eta denek esan zidaten baietz! Aterako nuela”.

Horretan hasi zen Enkarna. Azterketa teorikoa arazorik gabe gainditu zuen, baina zailena ondoren zetorren, autoa gidatzea. Azterketa praktikoa. “Gidatzeko klaseetan oso gaizki pasatu nuen, oso urduri egoten nintzen. Lehen egunetan, ez nuen ezer ondo egiten. Autoeskolako kotxea ere markatu nuen, Azkoitiko Aingeru kalean gora. Irakasleak beti esaten zidan lasaitzeko, baina hura estuasuna!”.

Hobeto edo okerrago, garbi dago gidatzen moldatu zela. Izan ere, 53 urterekin gidabaimena eskuratu zuen. Baina zerbait xelebrea ere gertatu zitzaion orduan: “Azterketa egiterakoan hanka-sar-

tzea egon zen. Gidatzeko lehen azterketan, nire ustez ongi ibili nintzen, baina ez nuen gainditu. Zerbait gaizki egingo nuela esaten nion nire buruari eta animoak ez galtzeko erronkari eutsi nion. Baina, arratsalde hartan bertan, autoeskola alboko bizilagun bat etorri zitzaidan irakasleen arteko elkarrizketan entzundakoa kontatzera. Nonbait, mojaren gainditua beste bati eman ziotela esaten zioten elkarri. Noski, beste mojarik ez zen azterketa egiten eta, badaezpada ere, frogatzea erabaki nuen. Autoeskolara joan eta zer gertatu zen galde-tu nuen. Ez zidaten ezer garbirik esaten, baina horrelakorik gertatu ez zenik ere ez zuten bermatzen. Azkenean, tratu bat proposatu nien: hurrengo astean azterketa gaindituko nuela bermatu behar zidaten, eta nik ezer gertatu ez balitz bezala jokatu-ko nuen. Horretan gelditu ginen”.

Hurrengo astean, Enkarnak berriro egin zuen azterketa, baina ez aurrekoan bezain ongi. Azterketa aurreko klase guztiak doakoak izan ziren aste hartan, baina ez zuten ezertarako ere balio izan; izan ere, azterketan aparkatu ere ez zuen egin Enkarnak. Azterketa hain gaizki egin arren gaindi-tuarekin bueltatu zen etxera. “Egun hartatik aurre-ra kotxean joaten nintzen lanera. Eskerrak!”.

Gidabaimenaren *arazoak*, ordea, Enkarnaren
sortzaile alderdia piztu zuen eta autoeskolako ira-
kasleari honoko bertso hau idatzi zion:

*Gaizki pasaua, ahaztua dut
ondo ikasia ez ordea.
Maisu trebea eta zintzoak
badauka zerbait gordea.
Nahiz ta lehenean aprobatzea
nik uste izan hobea.
Jaunak maite nau baina eman dit
nik nahi ez nuen lorea.
Jarraitu nahi det zuk irakatsi
didazun modu berea.
Nere okerren nahigabea
zuk ekintzen ohorea
agertzen dizut eta nahi nuke
ni eskerdun izatea,
azken batean oso gustora
dago zure ikaslea*

Txofer egin ahal izateak asko erraztu zizkion
gauzak Enkarnari. Bere bihotzak markatzen zion
erritmoan bizitzeko erraztasuna, batik bat pattalal-
dia zuenean.



Ikastolaren 25.
urteurrena
ospatzen, Kiruriri.



Enkamak Iturbideko odola zuen zainetan eta ia beti
pronto zegoen afariren bat egiteko. Argazkian,
Ikastolaren 25. urteurreneko ospakizuna.

Hala ere, beti bezala jarraitu zuen lanean. “Jolas-orduak beti izaten ziren mugituak. Tiritak, kamamilak, Asepeyora bidaiak, bataren edo bestearen gurasoei deitu, eskaileretan gora eta behera ibili irakasleen bila... Eguneko momenturik gogorenetakoa izaten zen hura”.

Halere, ikastolak egundoko aberastasun pertsonala eman diola onartzen du Enkarnak. “Jende asko ezagutu izan dut; baina, orain, ez dut inoiz inor ezagutzen”.

Irakasle rola betetzea ere tokatu zitzaion tarteka marteka. Ordezkapenen bat, zaintzaren bat... “Behin ikasle bat zigortu eta komentura eramainen bazkaltzera. Etxera joan gabe zigortu nuen eta, baina bazkaldu ere egin beharko zuen, ezta?”

Ikastola garaiko anekdota asko ditu Enkanak. Denak biltzen saiatuko bagina, horrelako lau edo bost liburuxka beharko genituzke. Baina beste batentzako lekua, behintzat, egingo dugu: “Azterketa garaian fotokopistako giltzak lapurtzea pentsatu zuten ikasle batzuk. Batek ni distraitzen ninduen bitartean, besteek giltzak hartu eta fotokopiak egiteko gelan azterketak aurkitu behar zituzten. Giltzak lapurtzea lortu zuten, baina ez azterketak aurkitzea, ez zeuden han gordeta eta!”.

BI MUNDUREN ARTEAN

Enkarna bi munduren artean bizi zen. Alde batetik, komentuko itxitura eta kontserbadurismo hura. Bestetik, horrekin talka egiten zuen gazte mugimendua, joera berriak, ikastolaren indarra... Azken horrek, gainera, bere iturbidetar izaerarekin bat egiten zuen.

Kongregazioan abituaren aldeko apustu tinkoa egiten zuten, baina Enkarnaren bizitzan askotan traba handia ere izan zen abitua. Hala ere, lehen aipatu dugun moduan, zuria eta beltza tartekatzen zituen. Baina, pixkanaka, joera hura ere aldatzen joan zen. Kolorea bakarrik aldatzetik, abituaren ordezkaleko arropa janztera iritsi zen.

“Nik beti gogoan daukat afariren bat-edo izaten genuenean, komentutik abituarekin irteten zela, baina kotxean edo gasolindegian arropaz aldatzen zen eta gurekin sekular jantzita joaten zen afaltzera. Bere ustez kalte gehiago egiten zuen moja bat gaueko ordu txiki haietan abitua jantzita ikusteak, berak abitua kenduta egiten zuen kalteak baino. Eta hori pixkanaka denera aplikatzen joan zen. Ezkontzetara gonbidatu izan dugunean ere, moja jantziarekin joaten zen elizara, baina ondoren arro-

paz aldatzen zen jatetxera joateko. Baina abitua Enkarnaren parte zen, hori barneratuta geneukan. Tarteka, arropak aldatu ere egin izan ditugu. Badaukat argazki bat, non Enkarna nire bakeroekin agertzen den eta ni bere abitu beltzarekin”, kontatzen du Begotxu Azkuek.

Kontraesan horiek pixkanaka areagotuz joan ziren. Enkarnak bizi eta ezagutzen zituen bi mundu haiek bere barne gatazka piztu zuten eta borroka hartatik nola edo ahala irtetea lortu behar zuen. Azkenean, kongregazioko zuzendaritzarekin zituen ezadostasunek moja bizitza lagatzera bultzatu zuten.

SEKULAR BIZITZAREN HASIERA

“Irteteko erabakia hartu zuenean asko kostatu zitzaigun. Ez genuen espero. Hala ere, disgustua ez emateko, azken eguna arte ez zigun ezer esan, ez guri ez komentuko inori. Kongregazioak zeraman martxarekin ez zuen bat egiten, guk ere ez, baina behin erabaki hura hartuta...”, diote Marian eta Maritxu Azkuek.

Kongregaziotik ateratzea erabaki zuenean, mentalitate aldaketa bat jasan zuela konturatu zen



Enkarna moja zela igandero joaten zen baserrira aita-amak eta senideak bisitatzera. Argazkian, Enkarna amarekin, koinatarekin eta ilobarekin.

Enkarna. Moja bizitza lagatzeko erabakian bere anaia Juanitok lagundu zion. Pixkanaka bere trasteak komentutik etxera eramaten lagundu zion eta hasierako denboraldia ere, Juanitoren etxean pasatu zuen.

“Komentutik ateratzea planteatu nuenean, zoriontsu nintzela uste zuela aurpegiratu zidan Burlatako komentuko zuzendari nagusiak. Horixe zoriontsu nintzela! Baina zoriontsu izateari laga baino lehen irten nahi nuen”.

Moja izateari utzi ondoren ere, kongregazioarekin harremana izan du Arregik. Burlatako superiorarengana ere joan zen. “Hangoak ere ez zeuden ados. Fideltasunik ez nuela esaten zidaten, eta hala erantzun nien nik: ‘Barruan fidel izateari uko egitea ere posible zela, baina nik nahiago nuela aurpegia ematea’”.

Etxekoen artean ere entzun behar izan zituen horrelakoak. Moja zen izeba batek ere Jainkoarekin dibortziazten ari zela esan zion, baina Enkarnak argi zuen: “Ez nintzen ari Jainkoarekin dibortziazten edo harremana mozten, kongregazioarekin baizik”.

Behin moja bizitza lagata, abitua kentzeko ordua zen. Baina 31 urtez janzkera hura ibili ondo-

ren, besteek zer pentsatuko zuten kezka zuen Enkarnak: “Ni oso zoriontsu izan nintzen moja nintzen bitartean, baina nire bizitzako aro hori amaitu zen, esnatu nintzen eta gaurko gizartea ezagutu nuen. Baina bertan integratzeko, sekular bizitza aurrera ateratzeko arropa erosi behar nuen. Komentua laga eta hurrengo asteburuan Juanito eta ni Donostiara joan eta arropa erosi nuen. Astelehenean, egundoko ikusminarekin nituen zain ikastola sarreran”.

Hala ere, batik bat bere sentsazioa zen. Izan ere, irakasleentzako ez zen lehen aldia Enkarna sekular jantzita ikusten zutela. Amenabarrek gogoratzen duen moduan, afari eta irteera guztietan abitua kentzeko hautua egiten zuen Enkarnak.

Moja izatetik sekular bizitzara pasatzea sekulako albistea izan bazen ere, beste zerbait berria gertatu bitartean bakarrik izan zuen garrantzia; ondoren, Enkarnak bere lanarekin normal jarraitu zuen.

BOKAZIO FALTA?

Mojatik irteten denaren arrazoi nagusia bokazio falta dela pentsatu dezakegu, baina Enkarnaren kasuan ez zen horrela izan. “Oraindik ere bokazio

berbera daukat, baina irakurgaien bidez, jendartea-
rekin harremanetan eta abar, esnatu egin nintzen.
Komentuko bizitza hura ez zitzaidala gustatzen
erabaki nuen. Hori ere, erabaki pertsonala izan zen,
ez ninduen inork bultzatu horretara. Esperantza
daukat, egunen batean kongregazioko buru dire-
nak ere esnatuko direla. Jainkoarengandik maita-
suna bakarrik dagoela, eta inoiz ez datorrela zigo-
rrik. Dagoeneko, kongregazioan buru berriak
daude, eta horiek ere esnatu dira”.

Ni komentuan kontraesan batean bizi nintzen.
Bi jainko ezin dira gurtu eta nire komentuko zuzen-
daritzakoen jainkoa eta nirea ez ziren berdinak.
Beraiek huskeriei ematen diete garrantzia. Nire
jainkoa, berriz, zerbait gehiago da.

ONDOREN, ERRETIROA

Moja bizitza laga ondoren ere urte pila egon zen
lanean ikastolan. Enkarna 65 urte bete arte ez zen
jubilatatu. Behin adin horretara iritsita, deskantsua
hartzeko garaia zela erabaki bazuen ere, orain inoiz
baino lan gehiago duela konturatu da. Ez dauka
ezertarako tarterik. Egunero pasiatzera irten, etxe-
ko gauzak egin...

Hala ere, ez zuen dena sustraitik eten. Doloresek oraindik gogoan du, “Enkarna jubilatuta eta oraindik hilabete batzuetan ikastolara etortzen jarraitu zuela, paper eta gauza asko egiteko laga zituela eta”.

Emakume honen indarra ez da berehala etengo. Gainera, erretiroak ere ekarri dizkio onurak. Lanean zegoen bitartean pattal-pattal egon bazen ere, orain inoiz baino hobeto dagoela ziurtatzen du. Bere bizitzan egin duen guztiaz harro dagoela dio eta ez da ezertaz damutzen. Berrirori jaioko balitz eta bere bizitza errepikatzeko aukera izango balu, beharbada bide bera aukeratuko lukeela dio. Egindakoak bere alde onak ere izan ditu: “Kulturalki eta formazio mailan asko aberastu nintzen moja nintzen bitartean, baina pertsona eta euskararen arloan, ikastolak eman dit ni naizen guztia”.

Hala ere, bizitzan zerbaitetaz ‘damutzen’ dela onartu du, azkenan; hain zuzen ere, liburuxka hau idazteko baimena eman izanaz. Emakume diskretua izanik, orain horrelako ‘arazoetan’ sartzea ez du oso beharrezkoa ikusten, baina esandakoa betetze aldera... “Uztarriak liburuxka biografikoa egitea proposatu zidanean, hasiera batean neure bizi-

tza eta intimitateak kontatzeko animorik ez nuen, baina anaia Imanolek hala esan zidan: ‘Nik ere bizitza honetan makina bat gauza egin behar izan dizkinat gogo handirik gabe, eta oraingo honetan hiri tokatu zain, eta aurrera egin behar dun!’. Orain, azken emaitza ikusita, gustura geratu naiz egindako lanarekin. Merezi izan du”.

*Uztarriatik deia jaso dut
hau bai gauz harrigarria
Izutu ere egin naiz eta
orain nago jesarria
Benetan diot, nire bizitzak
ez du_ezer aipagarria.
Bizitz arrunt hau kontatzea da
niretzat lotsagarria.
Baina, hala ere zer demonio!
idatz zan hire orria
Iturbide-ko_oinarria
zabal bizitzan irria
Ikastolako giro bikaina
nigan daukat ezarria
ahaztu gabe moja izateko
izan nuen egarria*

Uztarriaren Produktuak

Liburuak

Joxe Takolo	Enekoitz Esnaola, 2001
Angel Otaegi	Iban Arregi, 2001
Imanol Elias	Mailo Oiarzabal, 2002
Patxi Altuna	Josune Etxeberria, 2003
Azpeitiko efemerideak	Imanol Elias, 2003
Azpeitiko mendi gida	Lagun Onak Mendi Bazkuna eta Uztarria, 2004
Euskarazko prentsa eta Azpeitia	Uztarria, 2004
Loiolarik ez balitz	Iñigo Aranbarri eta Jose Luis Otamendi, 2005
Otsobeltz	Andoni Salegi, 2005
Urrestillako musika taldeak	Asier Sustaeta, 2006
Azpeitiarrak Espainiako Gerran	Amaia Mendizabal, 2006
Oroitari	Kepa Urbietta, 2008

CD-A

Urolaldeko bertso zaharrak	Erniarraitz Bertsozale Elkartea eta Uztarria, 2007
----------------------------	---

Liburuxka Biografikoak

Julian Bereziartua	Ander Ugarte, 2009
Leo Etxeberria	Miren Garate, 2009
Valentina Agirre	Olatz Prat, 2009
Xanti Lazkano	Nekane Zinkunegi, 2010
Amaia Garmendia	Xabier Otamendi, 2010
Enkarna Arregi	Alexander Silva, 2011

UZTARRIAREN BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



